

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKO IRAUNKORRA

Autobusetako Emakume-gidariak izeneko prestakuntza-programa emateko kontratazioa egiteko lehiaketa

2016ko abuztuaren 2an onetsi zen 2016/CONSO0314 zenbakia duen kontratazio dosierra.

1. Esleitzen duen toki-erakundea.

a) Erakundea: Vitoria-Gasteizko Udala.

b) Dosierra izapidetzen ari dena: Enplegua eta Garapen Ekonomiko Iraunkorra

c) Dosier zenbakia: 2016/CONASO0314.

2. Kontratuaren xedea.

a) Xedearen deskribapena: "Autobusetako emakume-gidariak" izeneko prestakuntza-programa ematea.

b) Kontratu mota: zerbitzuak.

c) CPV kodea: 80510000 Prestakuntza espezializatuko zerbitzuak

d) Aldaerak onartzea: ez da egokia.

3. Izapideak, prozedura eta esleitzeko era.

a) Izapideak: ohikoak.

b) Prozedura: irekia.

c) Arautze harmonizatuari lotutako kontratua: ez.

d) Gauzatzeko epea: 145 ordu, 2016ko azarotik 2017ko urtarrilera arte.

e) Luzapena: ez.

4. Kontratuaren zenbatekoa, edo zenbatera artekoa:

a) Aurrekontua, BEZ barne: 30.250,00 euro. Kopuru horretatik BEZari dagozkio: 5.250,00 euro.

5. Alderdi juridiko, ekonomiko, finantzario eta teknikoei buruzko informazioa:

a) Behin-behineko bermea: ez da eskatzen.

b) Behin betiko bermea: kontratuaren aurrekontu osoaren (BEZik gabe) ehuneko 5, baldintzen agirian aurreikusitako salbuespenetan izan ezik.

c) Berme osagarria: ez da eskatzen.

d) Ordaintzeko modua: ikus administrazio baldintzen orriak.

e) Balorazio-irizpideak: administrazio baldintzen agirian adierazten direnak, beheranzko hurrenkeran.

f) Sailkapena (taldea, azpitaldea eta kategoria): ez da eskatzen.

g) Kaudimen teknikoak: ikus administrazio baldintzen orriak.

h) Kaudimen ekonomikoak: ikus administrazio baldintzen orriak.

6. Agiriak eskuratzea:

a) Lekua: ARCO fotokopia-denda San Antonio kalea, 16; 01005 Gasteiz; telefonoak: 945 232813 eta 945 140678, faxa: 945140678-, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:30era.

b) Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: eskaintzak aurkezteko azken egunera arte.

c) Dosierri aztertzea: Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saila

7. Eskaintzak aurkeztea:

Aurkezteko epea: 15 egun natural, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokituz gero, hurrengo lehen egun baliodunera arte luzatuko da epea. Ondorio horiei dagozkienetarako, San Martineko herritarrei laguntzeko bulegoa itxita dagoen egunak jaieguntzat joko dira —Udalaren web-orriko kontratatzailearen profilean emango da horien berri—.

a) Ordutegia: 8:30etik 13:00etara, astelehenetik ostiralera.

b) Postaz igortzea: Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorren 80.4. artikuluan adierazitako moduan egin ahal izango da. Postaz bidaliz gero, 945 161600 fax zenbakira igorri beharko da horren jakinarazpena.

c) Aurkeztu beharreko agiriak: ikus administrazio baldintzen orria.

Aurkezteko lekua: Gasteizko Udalaren Erregistro Nagusian —Teodoro Dublang Margolaria-ren kalea, 25 - behea; 01008 Vitoria-Gasteiz— aurkeztu beharko dira eskaintzak.

d) Lehiatzaileak eskaintzari eutsi behar dion epea: 3 hilabete.

e) Eskaintzak zabaltzea:

B gutun-azala (administrazio agiriak) jendaurrekoa izango ez den ekitaldian zabalduko da, udaletxean, eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondoren egun baliodun egokitzen den lehen asteazkenean, goizeko hamar eta erdietan (10:30).

C gutun-azala (formula bidez kuantifikatu ezin den balio-iritziaren mende dauden esleipen irizpideak baloratzeko agiri teknikoak) jendaurreko ekitaldian zabalduko dira, udaletxean, B gutun-azalak zabaltzen diren asteazken berean, hamaika eta erdietan (11:30).

A gutun-azala (eskaintza ekonomikoa eta balorazio irizpideetarako agiri teknikoak, prezioa ez direnak, baina formula aplikatuz ebaluatu behar direnak) jendaurreko ekitaldian zabalduko da, udaletxean, kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean (www.vitoria-gasteiz.org/lehiaketak) adierazten den egunean eta orduan.

8. Iragarkien gastuak: esleipena jasotzen duenaren kontura joango dira.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko abuztuaren 17an

Enplegua eta Garapen Ekonomiko Iraunkorreko Administrazio Orokorreko teknikaria
HELENA RUIZ JIMÉNEZ DE VICUÑA